



Aurreko otsaileko prentsaurrekoan iragarri zen moduan, orain arte erabilitako arropa, oinetakoak, osagarriak, etxeko arropa eta ehunikiak oro har jasotzeko Debagoieneko kaleetan jarrita dauden edukiontzia, datorren astetik aurrera objektu berrerabilgarri txikiak ere jasotzeko erabiliko dira; hala nola, liburuak, jostailuak, gailu elektrikoak eta elektronikoak, bisuteria eta, oro har, erabiltzaileak kontserbatzeko edo funtzionatzeko berrerabili daitekeela jotzen duen edozein objektu edo produktu txiki. Beraz, aipatutako edukiontzia hemendik aurrera ehunkiaz gain, objektu berrerabilgarri txikiak ere lagatzeko erabili ahal izango dira.

Alde horretatik, oso garrantzitsua izango da elementu ebakitzailerik edo hautsi direlako ebaki dezaketenik, hala nola, aiztoak, kristalak, baxerak etab. ez botatzeko mezua oso argi lagatzea.

Aurreko egoerarekin alderatuz, hemendik aurrera gizarte izaera duen Emaus enpresak objektu eta elementu berrerabilgarri txikiak biltzeaz gain, prozesu zirkular bateko fase guztiak txertatuko ditu (biltzea, sailkatzea, garbitzea, konpontzea eta berrerabiltzeko edo birziklatzeko saltzea); azken helburua ahalik eta gehien berrerabiltzea izango delarik.

Hori dela eta, gaur egun kaleetan jarrita dauden 62 edukiontzia erabilera berrira egokitzeko eta erabiltzaileek hauen funtzio berriaren berri izateko, beraien irudia guztiz berrituko da. Horretarako, maiatzaren 21etik aurrera Debagoieneko Mankomunitateko herri guztietan ehunikiak jasotzeko erabili izan diren edukiontzi guztiak, modu gradualean baina ahalik eta denbora gutxienean eraldatuko dira.

Beheko argazki honetan eraldatutako edukiontziek zein itxura izango duten ikus daiteke:





Beste behin ere, berrerabilpenaren alde ematen ari garen urrats garrantzitsu honetan parte hartzera animatu nahi ditugu debagoiendar guztiak!!